

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2022 Foru Dekretua, ekainaren 14koa. Onespena ematea Santiagoko Azokan beren ekoizpena merkaturatzeko pertsona, enpresa edo entitate ekoizleek izan behar duten partaidetza arautzen duten oinarriei, bai eta 2022rako deialdiari ere

Ekainaren 4ko 265/2019 Foru Aginduaren bidez, deialdi publiko bat onetsi zen 2019ko uztailaren 25ean Gasteizko unibertsitate campusean egitekoa zen Santiago eguneko azokan erakusle-saltzaile gisa parte hartzeko baldintzak jasotzeko eta, horien arabera, azokan parte hartuko zuten pertsona eta enpresa ekoizleak hautatzeko.

2020an eta 2021ean, eta koronabirusak (SAR-CoV-2) sortutako pandemia egoeraren ondorioz, ez zen azoka tradizional hori egin. Alabaina, pandemiaren bilakaera ona izaten ari denez, Nekazaritza Sailak, produktuak zuzenean saltzen dituzten ekoizleentzat merkatu horrek duen garrantziaz ohartuta, azoka berriz antolatzea erabaki du.

Nekazaritza Sailak asmoa dauka 2022ko uztailaren 25ean Santiago eguneko nekazaritza azoka tradizionala egiteko. Azoka egitearen helburu nagusiak hauek dira: hiriko biztanleei Araban lantzen, hazten, egiten eta transformatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen ugaritasuna eta aberastasuna erakustea; landa eremuak garatzeko orduan nekazariak eta abeltzainek duten garrantzi soziala nabarmentzea, eta Arabako ingurune naturala babestea eta kontserbatzea.

Administrazio publikoen laguntzak edo prestazioak ematerakoan, publizitatearen, gardenetasunaren, lehiaketaren, objektibitatearen, berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak bete behar dira. Bada, printzipio horiek betetzen direla bermatzeko, 2022ko Santiago eguneko nekazaritza azokako parte hartzaileen hautaketa sistema ezarri da, bat etorritik ebazpen honekin batera doazen oinarrietan xedatutakoarekin.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak bete dira.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Santiago eguneko azokan pertsona, enpresa edo nekazaritzako erakunde ekoizleek erakusle-saltzaile gisa parte hartzeko deialdi publikoaren oinarri arautzaileak, dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena. Santiago eguneko azokan parte hartzeko 2022rako deialdia onestea, honako xehetasun hauekin:

a) Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Eskaera inprimaki normalizatuan egin behar da (eredua II. eranskinean dago), zeina Nekazaritza Sailaren web orrian eskuratu ahal izango baita, eta leku hauetan aurkeztu behar da:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko ogasun bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nor-tasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun baliouduneko izango da, deialdi honen iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Eskabideekin batera, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak eta konpromisoak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da.

c) Nolanahi ere, Foru Aldundiak eskubidea izango du eskaera behar bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri oro eskatzeko pertsona fisiko eta juridiko eskatzaileei.

d) Eskaeretan akatsen bat dagoela edo daturen bat falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, pertsona edo erakunde interesdunei eskatuko die eskaeran eskatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako agiriak aurkezteko, hamar egun baliouduneko epean, errekerimendu jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskaera ezetsiko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

e) Organo instrukzio egileak modu elkarreragilean egingo ditu zerga betebeharrak eta Gize Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagirietan egin beharreko kontsultak eta egiaz-tapenak, salbu eta eskatzaileak edo onuradunak horren aurka badaude. Aurka egonez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nekazaritza Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. Eranskina

Santiago eguneko nekazaritza azokan beren ekoizpena merkaturatu nahi duten pertsona, enpresa edo erakunde ekoizleen partaidetza arautzen duten oinarriak

1. artikulua. Parte hartzen duten pertsona, enpresa edo erakundeen tipologia

Santiago eguneko nekazaritza azokan parte hartzeko hautatua izan nahi duen ekoizleak honako tipologia hauetakoren batekoa izan behar du:

– Merkaturatzen duen produktu motaren arabera, Nekazaritza Ustiategien Erregistroan, Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean (NEEO) eta/edo Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean (AUEO) erregistratutako nekazaritza ustiategi baten titularra.

– Nekazaritzako elikagaien ekoizleen elkarte edo kooperatiba bateko bazkidea edo langilea, bazkide gehienak nekazaritzako eta/edo abeltzaintzako ustiategien titullarrak badira.

– Manipulatutako edo eraldatutako elikagaien ekoizleak, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Ekoizleak manipulatzeko eta/edo eraldatzeko produktu Arabako Lurralde Historikoan.

– Ekoizpenean erabiltzen diren lehengaiak batez ere ustiategian bertan ekoizitakoak badira. Ogia, gozokiak, hestebeteak eta garagardoa izan ezik.

Antolaketa batzordeak berariaz gonbidatuta sartu ahal izango ditu ekoizleak, aurreko kategorietakoak izan ez arren, ekoizpenaren ezaugarri bereziengatik azokarako lehentasunezko interesekoak badira.

2. artikulua. Pertsona, enpresa edo erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak

– Zerga egoitza Araban izatea.

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

– Merkataria alta emanda egotea jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion epigrafeetan, beharrezkoa bada.

– Merkataria alta emanda egotea dagokion Gizarte Segurantzako araubidean. Baldintza hori eskatu ahal izango zaie, halaber, titullarraren izenean baimena eskatzen zaien pertsonari (pertsona fisikoak badira) edo baimena erabiliko duten pertsonari, enplegatuei edo bazkideei (pertsona juridikoen kasuan).

– Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia izatea.

– Saltzen diren produktuen araudian ezarritako osasun arauak eta betekizunak betetzea, bai salgai diren produktuei, bai instalazioei dagozkienak. Ildo horretan, merkaturatu beharreko produktuaren arabera, erregistro ofizial guztietan erregistratu behar da nahitaez.

3. artikulua. Pertsona, enpresa edo erakunde ekoizleek hartutako konpromisoak

Santiago eguneko nekazaritza azokan parte hartzeko hautatutako pertsonak edo erakundeek nahitaez bete behar dituzte horrelako merkatuetan kalez kaleko salmentarako bete beharreko baldintzak eta aplikatu beharreko higie eta osasun baldintzak.

Aurrekoaz gain, eta berariaz, konpromiso hauek hartuko dituzte:

– Ustiategian lortutako edo beren jardueran egindako produktuak soilik erakustea eta merkaturatzea, horretarako dagokion baimena izanez gero.

– Erakundeak esleitutako standak dituen neurriak errespetatuz erabiltzea. Ezin da luzapenik edo mahai gehigarri jarri produktua erakusteko azalera handitzeko.

– Santiago eguneko nekazaritza azoka egiten den urteko uztailearen 25eko 9:00ak baino lehen azokara joatea, esleitutako standak prestatzeko.

– Standean egotea antolatzaileek ezarritako ordutegi osoan. Azoka egiten den eguneko 10:00etatik 14:30era esleitutako saltokian edo standean egotea, eta produktuak ikusgai izatea, salbu eta eskainitako ekoizpen osoa saldu bada.

4. artikulua. Izapidetzea

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

Espedienteak izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Bigarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean 2022ko Santiago eguneko azokako parte hartzaileak aukeratzeko, hautaketa batzorde bat eratu da, honako kide hauez osatua:

- Nekazaritza Garapenerako Atalaren burua.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

5. artikulua. Parte hartzaileak hautatzea

Ezarritako epearen barruan egindako eskaera guztiak onartuko dira, onartzeko baldintzak betetzen badituzte eta urteko deialdi bakoitzean produktu mota bakoitzerako ezarritako erakusmahaien gehieneko kopurua gainditzen ez bada.

Arabako produktu adierazgarri guztien parte hartzea ziurtatzeko eta saltoki kopurua ekitaldirako dagoen espazioaren arabera mugatzeko, honako partaidetza muga hauek ezartzen dira produktu mota bakoitzeko:

PRODUKTU MOTA	ERAKUSMAHAI KOPURUA GEHIENEZ
Olioia	4
Behi eta zaldi haragia eta eratorriak	5
Barraskiloak	1
Txerri hestebeteak eta odolosteak	2
Arabako Errioxako ardoa, Errioxa JDKduna	4
Araba JDko txakolina	4
Sagardoa edo sagar ura	3
Garagardoa	2
Patatak eta barazkiak	7
Lekaleak	4
Gatza	1
Eztia	3
Idiazabal JDko gazta	10
Beste gazta batzuk	4
Eskualdeko produktuak	3
Ogia eta gozokiak	9
Guztira	66

Hautaketa batzordeak erakusmahaien gehieneko kopurua aldatu ahal izango du, bai eta produktu mota bakoitzarena ere, pertsona, enpresa edo erakunde ekoizleek azokan parte hartzeko urtero onesten den deialdian, eta, horrez gain, produktu berriak sartu ahal izango ditu.

Deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren gehieneko kopurua hautaketa batzordeak aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, beharrezko baldintzak bete arren eskaera ezarritako epean egin ez duten Arabako ekoizleak gonbidatu ahal izango ditu. Prozedura horren bidez ere aurreikusitako kupoak betetzen ez badira, beste produktu mota batzuk ekoizten dituzten pertsonen kopurua handitu ahal izango da, nahiz eta aipatutako mugak gainditu.

Gainera, hautaketa batzordeak pertsona edo erakunde ekoizleak gonbidatu ahal izango ditu, baldin eta onartuak izateko deialdian ezarritako betekizunak bete ez arren bereziki interesgarritzat jotzen baditu, esaterako ezaugarri hauek betetzen dituztelako, besteak beste:

- Ekoizpen berria Araban.
- Artisau ekoizpena, desagertzeko arriskuan dagoena, gure elikadura ondarea eta gure dibertsitatea aberasten dituen.
- Merkatu ekologikoan eta/edo tokiko merkatuan ikuspegi berriak irekitzen dituzten ekoizpenak.

Jasotako eskaeren kopurua deialdirako eskuragarri dagoen saltoki kopurua baino handiagoa bada, bai osotasunean, bai produktu mota bakoitzeko, hautaketa batzordeak eskabideak baloratuko ditu eta lehentasun irizpideak aplikatuko ditu, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Puntuazio handiena lortzen duten eskaerak hautatuko dira, eta ezingo da izan dagoen saltoki kopurua baino handiagoa.

6. artikulua. Hautaketa irizpideak

Ezarritako epearen barruan dagokion eskaera eta baldintzak betetzen direla eta konpromisoak hartzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena bidaltzen dituzten eskatzaileen artean, puntuazio handienetik txikienera hautatuko dira azokako parte hartzaileak eta horien ordezkokoak, honako irizpide hauen arabera:

1. Kalitate bereiziko marka ziurtatua edukitzea: 8 puntu.
2. EKOLURRAren Nekazaritza Ekologikoko Eragileen Zentsuan izena emanda egotea: 8 puntu.
3. Nekazaritza ustiategiaren titularra emakumea izatea, edo sozietate zibilean edo titulartasun partekatuko sozietatean gutxienez % 50eko partaidetza izatea: 5 puntu.
4. Nekazaritza ustiategiaren titularra 41 urtetik beherakoa izatea, edo sozietate zibilean edo titulartasun partekatuko sozietatean gutxienez % 50eko partaidetza izatea. 5 puntu.
5. Hautatzen den produktu motaren Arabako nekazaritza ustiategi bakarra izatea: 3 puntu.

Produktu motako puntu berdinketa gertatuz gero, zozketa egingo da, eta esleitzen ez direnak ordezeko moduan geratuko dira.

Oinarri arautzaile hauetan ezartzen ez diren kasuei eta egoerei dagokienez, kide anitzeko hautaketa organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituari.

7. artikulua. Produktua saltzen duten pertsona, enpresa edo erakunde ekoizleak zehaztea


Hautaketa batzordeak produktu mota bakoitzeko pertsona edo erakunde parte hartzaileak hautatuko ditu. Ordezkoak ere hautatuko ditu (parte hartzaileen kopuru bera), Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzari 2022ko uztailaren 15a baino lehen azokara joango ez direla jakinarazten dioten parte hartzaile hautatuak ordezkatzeko.

Santiago eguneko nekazaritza azokan produktuak saltzeko pertsona edo erakunde ekoizle hautatuak proposatu ondoren, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko da ekoizle horien zerrenda eta, hala badagokio, produktu mota bakoitzeko ordezkoea.

Hautaketa batzordeak sasoiz jakinaraziko die pertsona edo erakunde eskatzaileei hautatuen zerrenda.

8. artikulua. Saltokia esleitzea

Hautaketa batzordearen ardura izango da hautatutako pertsonak, enpresak edo erakundeak azokaren lekuan kokatzea. Saltoki bakoitzaren kokalekua aukeratzeko, kontuan hartuko dira ekoizle bakoitzaren behar espezifikoak (itzala, energia elektrikoaren beharrak, etab.), azokaren ibilbidean zehar askotariko produktu eskaintza izatea, etab.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA • FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO Pertsona, enpresa edota entitate ekoizle gisa parte hartzeko eskaera eta betebeharrak eta baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena Solicitud de participación en calidad de persona, empresa o entidad productora y declaración responsable de cumplimiento de obligaciones y requisitos
--	--

Nekazaritza Saila

Departamento de Agricultura

Urtea ■ Año

ENPRESA ESKATZAILEA ■ EMPRESA SOLICITANTE
 NAN / IFZ ■
 DNI / NIF

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE*PERTSONA JURIKOEN KASUAN BETE BEHARREKOA ■ A RELLENAR EN EL CASO DE PERSONAS JURIDICAS*
 NAN / IFZ ■
 DNI / NIF

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA • FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO Pertsona, enpresa edota entitate ekoizle gisa parte hartzeko eskaera eta betebeharrak eta baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena Solicitud de participación en calidad de persona, empresa o entidad productora y declaración responsable de cumplimiento de obligaciones y requisitos
---	--

Goian adierazitako pertsonak hauxe:

La persona arriba indicada:

ESKATZEN DU	
SOLICITA	
Santiagoako Azokan pertsona, enpresa edo entitate ekoizle gisa hautatua izan dadila, erakusgai jarriko dituen produktu mota honekin (zerrendatu produktu nagusitik hasita):	
Ser seleccionado como persona, empresa o entidad productora para la Feria de Santiago, con el siguiente tipo de productos expuestos (listar comenzando por el producto principal):	
1.	
2.	
3.	
4.	
Erakustokian agertuko den izena honako hau izatea:	
Que el nombre que figure en el rótulo del expositor sea:	
.....	
<input type="checkbox"/>	Argindarra eskatzen du (markatu soilik beharrezkoa bada) Solicita acceso a toma de luz (marcar solo en caso de ser necesario)
Bestelako eskaerak:	
Otras solicitudes:	
.....	

Ikusgai eta, hala dagokionean, salgai jarritako produktuez kontsumitzaileari bermea emateko,

Y como garantía para las personas consumidoras, de los productos exhibidos y, en su caso, puestos a la venta,

AITORTZEN DU	
DECLARA	
Hurrengo modalitateetako batean dagoela (markatu lauki bakarra):	
Que forma parte de la modalidad siguiente (marcar una única casilla):	
<input type="checkbox"/>	Nekazaritza eta/edo abeltzaintzako ustiategia, Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan erroldatua. Explotación agraria y/o ganadera, inscrita en Registro de Explotaciones Agrarias.
<input type="checkbox"/>	Kooperatiba edo ekoizle elkarte, bazkide gehienak nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategiak dituena. Cooperativa o agrupación de productores, cuyos socios son mayoritariamente explotaciones agrarias o ganaderas.
<input type="checkbox"/>	Nekazaritza-elikagaien enpresa, zeinetan: <ul style="list-style-type: none"> • Produktuen manipulazioa eta eraldaketa ekoizleak berak burutzen du, Arabako Lurralde Historikoan. • Ekoizpenean erabiltzen diren lehengaiak batez ere ustiategian bertan ekoiztitaokak dira. Salbuetsi egingo dira ogia, gozokiak, hestebeteak eta garagardoa. Empresa agroalimentaria, en la que <ul style="list-style-type: none"> • La manipulación y/o transformación del producto se realiza por la persona productora en el Territorio Histórico de Álava. • Las materias primas con las que se elabora proceden principalmente de su explotación. Se exceptuarán pan, repostería, embutidos y cerveza.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA • FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO Pertsona, enpresa edota entitate ekoizle gisa parte hartzeko eskaera eta betebeharrak eta baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena Solicitud de participación en calidad de persona, empresa o entidad productora y declaración responsable de cumplimiento de obligaciones y requisitos
---	--

Saldutako produktuek ondorengo ezaugarriak dituztela
 Que los productos comercializados reúnen las siguientes características

<input type="checkbox"/>	Kalitate marka, jatorri izendapena edo baliokidea duen ekoizpena. Zehaztu: Producción amparada bajo una marca de calidad, denominación de origen equivalente. Especificar:
<input type="checkbox"/>	Ekoizpen ekologiko ziurtatua (EKOLURRAnen erregistroan errolatua) Producción ecológica certificada (inscrita en el registro de EKOLURRA)

Ezagutu eta betetzen dituela Santiagoko Azokako nekazaritza erakusketan parte hartzeko Arabako Foru Aldundiak eskatzen dituen betebeharrak, ondoko hauek hain zuzen ere:

Que conoce y cumple los requisitos exigidos por la Diputación Foral de Álava para participar en la Exposición Agrícola de la Feria de Santiago, y que son los siguientes:

<input type="checkbox"/>	Zerga egoitza Araban daukala. Que está domiciliada fiscalmente en Álava.
<input type="checkbox"/>	Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Estar al corriente de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.
<input type="checkbox"/>	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan merkataritari alta emanda egotea, beharrezkoa bada. Estar dada de alta la persona comerciante en los epígrafes correspondientes al Impuesto de Actividades Económicas, en caso de ser necesario.
<input type="checkbox"/>	Merkataritari alta emanda egotea dagozkion Gizarte Segurantzako araubidean. Baldintza hori eskatu ahal izango zaie, halaber, titularren izenean baimena eskatzen zaien pertsonen (persona fisikoak badira) edo baimena erabiliko duten pertsonen, enplegatuei edo bazkideei (persona juridikoen kasuan). Estar dada de alta la persona comerciante en el régimen de la Seguridad Social correspondiente. Este requisito será también exigible a las personas para las que se solicita la autorización en nombre del titular (si son personas físicas) o para las personas, empleados o socios que vayan a hacer uso de la autorización (en el caso de personas jurídicas).
<input type="checkbox"/>	Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia izatea. Poseer un Seguro de Responsabilidad Civil, que cubra los riesgos de la actividad económica.
<input type="checkbox"/>	Araudian ezarritako osasun arauak eta betekizunak, bai salgai diren produktuei bai instalazioei dagozkienak. Ildo horretan, merkaturatu beharreko produktuaren arabera, erregistro ofizial guztietan inskribatu beharko da nahitaez. Cumplir las normas sanitarias y los requisitos establecidos por la normativa reguladora, tanto los relativos a los productos objeto de venta como a las instalaciones. En ese sentido, será preceptiva la inscripción en todos los registros oficiales pertenecientes en función del tipo de producto a comercializar.

Parte hartzeko hautatua izanez gero, ondorengo konpromisoak bere gain hartzen dituela:

Que en caso de ser seleccionado, se compromete a:

<input type="checkbox"/>	Ustiatzean lortutako edo jardueran egindako produktuak soilik erakustea eta merkaturatzea, horretarako dagozkion baimena izanez gero. Exponer y comercializar exclusivamente productos obtenidos en su explotación o elaborados en su actividad, para los que se posea la correspondiente autorización
<input type="checkbox"/>	Erakundeak esleitutako stand bere neurriak errespetatuz erabiltzea. Ezin da luzapenik edo mahai gehigarriak jarri produktua erakusteko azalera handitzeko. Utilizar el stand asignado por la organización respetando sus dimensiones. No se permite la colocación de prolongaciones o mesas adicionales con el objetivo de aumentar la superficie para exponer el producto.
<input type="checkbox"/>	Santiagoko Nekazaritza Azoka egiten den urteko uztailaren 25eko 9:00ak baino lehen azokara joatea, esleitutako stand prestatzeko. Acudir al recinto ferial antes de las 9:00 h del día 25 de julio del año de celebración de la Feria Agrícola de Santiago para preparar el stand asignado para preparar el stand asignado.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA • FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO Pertsona, enpresa edota entitate ekoizle gisa parte hartzeko eskaera eta betebeharrak eta baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena Solicitud de participación en calidad de persona, empresa o entidad productora y declaración responsable de cumplimiento de obligaciones y requisitos
---	--

Standean egotea antolatzaileek ezarritako ordutegi osoan. Haietarik bakoitzari esleitutako postuetan edo standetan egon beharko dute, eta produktua ikusgai egon beharko dute, salbu eta eskainitako ekoizpen osoa saldu badute, azoka egiten den eguneko 10:00etatik 14:30era.

Permanecer en el stand en el horario completo marcado por la organización. Deberán permanecer en los puestos o stands asignados a cada uno de ellos, y con producto en exposición, salvo que hubieran vendido la totalidad de la producción ofertada, desde las 10,00 hasta las 14,30 horas del día de celebración de la Feria.

Araudi erregulatuzailearen arabaera, Arabako Foru Aldundiako Nekazaritza Sailak, honako hauei buruzko ziuragiriak eta beharrezko informazioa eskatuko dizkio administrazio eskundunari:

- Zerga-betebeharrak betetzea
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea

De acuerdo a la normativa reguladora, el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, recabará en la administración competente los certificados en información necesaria sobre:

- Cumplimiento de las obligaciones tributarias
- Cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social

Nekazaritza Sailak ofizioz egiaztatzearen aurka nago.

Me opongo a la comprobación de oficio por parte del Servicio del Departamento de Agricultura.

Eta hala ager dadin, zinpeko aitorten hau sinatzen du,
 Y para que conste firma la presente Declaración Jurada,

(**Tokia eta data** ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotakoak betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulatasuneko nekazaritza ustiatuegiaren titularen fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduetan Nekazaritza ustiatuegiarako laguntzak eta inbertsioak kudeatzeko egiten dira, baita nekazaritza jardueren erregistroa kudeatzeko ere.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baltzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

DBEOk onartzen dituen eskubideak, hau da, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin eta mugatzeak, egikaritu ahalko dituzu. Horretarako, nahikoa duzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz, Araba) joatea. Argibide gehiagorako: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektronikoa Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeri utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Nota (1)


Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Titulares explotaciones agrarias titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para gestionar subvenciones e inversiones a explotaciones agrarias así como para la gestión del registro de actividades agrarias.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	<p>SANTIAGOKO NEKAZARITZA AZOKA • FERIA AGRÍCOLA DE SANTIAGO Pertsona, enpresa edota entitate ekoizle gisa parte hartzeko eskaera eta betebeharrak eta baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena Solicitud de participación en calidad de persona, empresa o entidad productora y declaración responsable de cumplimiento de obligaciones y requisitos</p>
--	--

Oharra

Berdintasunaren arloko araudia betetz, honako hau ADIERAZTEN DUT:

LEHENENGOA. Ez ordezkatzen dudun erakundeak ez erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridikok edo elkarte ez dela duela, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen eta funtzionamendu prozesuetan, OLoren 13. artikuluan eta Euskadiko Berdintasun Legearen 24(2) artikuluan xedatutakoarekin bat etortz.

BIGARRENA. Ez ni ez ordezkatzen dudun erakunde edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako kide diren inongo pertsona juridiko edo elkarte ez dela zigortua izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta, inor baztertzeko, ez eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietako hamalagarrenean gizonen eta emakumeen berdintasun arloko xedatutakoak urratzeagatik ere. Legegintzako errege dekretuak Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du eta lege organikoak emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna. Hona hemen halako batzuk, besteak beste:

1. Ez bete Langileen Estatutuak edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboak berdintasun planen arloko ezarritako betebeharrak.
2. Sexua dela eta, ordainsari, lanaldi, prestakuntza, sustapen eta gainerako lan baldintzetan bereizkeria zuzena edo zeharkakoa dakarten enpresa erabakiak.
3. Langileek enpresan egindako erreklamazio edo berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioa betetzeko eskatzen duten eginiza administrazio edo judicial baten aurrean, haien aurkako jarrera dakarten enpresaburuaren erabakiak.
4. Publizitate edo beste zernahi hedatze bidez, baldintzak ezartzea, sexua arrazoi, onerako edo txarrerako baztertzeko erabakiak.
5. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
6. Sexu-jazarpena, enpresa zuzendaritzaren eskumenen baitako arloetan gertatzen denean, jazarlea normahi dela ere, baldin eta enpresaburuak, jakinaren gainean, ez badu neurrik hartu halakorik ekiditeko.
7. Berdintasun planik ez egitea edo aplikatzea edo, halakorik izan arren, argi eta garbi ez betetzea, baldin eta plan hori egiteak abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.bis.2 paragrafoan xedatutakoari erantzuten badio. Legegintzako dekretu horrek Gizarte Ordenaren Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateratua onartzen du.

Nota

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO. Que ni la organización a la que represento, ni persona jurídica o entidad alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo).

SEGUNDO. Que ni yo, ni la organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de los órganos de gobierno o administración de esta sociedad, hemos sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social y Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres de 22 de marzo (entre otras, a título no limitativo).

1. No cumplir las obligaciones que en materia de planes de igualdad establecen el Estatuto de los Trabajadores o el convenio colectivo que sea de aplicación
2. Decisiones unilaterales de la empresa que impliquen discriminaciones directas o indirectas adversas en materia de retribuciones, jornadas, formación, promoción y demás condiciones de trabajo, por circunstancias de sexo,
3. Decisiones del empresario que supongan un trato desfavorable de los trabajadores como reacción ante una reclamación efectuada en la empresa o ante una acción administrativa o judicial destinada a exigir el cumplimiento del principio de igualdad de trato y no discriminación
4. Establecer condiciones, mediante la publicidad, difusión o por cualquier otro medio, que constituyan discriminaciones favorables o adversas para el acceso al empleo por motivos de sexo,
5. Acoso sexual, cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo de la misma
6. Acoso por razón de sexo, cuando se produzcan dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial, cualquiera que sea el sujeto activo del mismo, siempre que, conocido por el empresario, éste no hubiera adoptado las medidas necesarias para impedirlo
7. No elaborar o no aplicar el plan de igualdad, o hacerlo incumpliendo manifiestamente los términos previstos, cuando la obligación de realizar dicho plan responda a lo establecido en el Apartado 2 del 46 bis del Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social.

www.araba.eus

Probintzia plaza, s/n 01001 Vitoria-Gasteiz. Tel. +34 945 181818. Fax +34 945 181754. e-mail:afa-dfa@araba.eus

© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava

5/5